

# BUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

## EHUn irakasgaien %40a euskaraz ikas daiteke

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) estatutuen 243. Atalak irakaskuntza euskaraz nahiz erdaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die unibertsitari guztiei. Baita probak, azterketak eta ikerlanak euskaraz egitekoa ere. Horrela bada, EHUK euskara pixkanaka-pixkanaka ikasketa guztietan ezartzeko plangintza onartu eta egitasmo hori aurrera eraman ahal izateko behetik gorako egitura sortu zuen: ikastetxe bakoitzean Euskararako Batzorde bana euskararen bizia bultzatu eta araudia bete dadila begiratzeko, unibertsitateko Euskararako Batzordea, Euskararako Kabinetea eta Euskararako Errektoreordetza. Plangintza hori aurrera eramateak oztopo handiak izan ditu, baina eragozpenak eragozpen, azken urteotako lanari esker, gaur egun EHUn ematen diren derrigorrezko irakasgaien %39,45a euskaraz ere ikas daiteke. Eskuineko grafikoan ikusten denez, campus bakoitzak bere inguruko errealitate soziolinguistikoa isladatzen du:

Gipuzkoa da campusik euskaldunena eta Araba egiteko gehien duena. Geografia eta Historia, Psikologia, Euskal Filologia, Irakasle eskoletako Euskal Filologia edo Gizarte Graduazioa erabat euskaraz ikas daitezkeen bitartean, Topografian, Arkitekturan, Erizaintzan, Odontologian, Telekomunikazioetan eta Meatz Ingeniaritzan dena egiteko dago. Hala ere, lanak aurrera segitzen du. 1992-93 ikasturtean 109 irakasle elebidun kontratatuaren eta 10 testuliburu argitaratu. Aurten beste 8 argitaratuko dira. Laster batean Euskararako Errektoreordetzak irakasle euskaldunen prestakuntza sustatzeko hitzarmena sinatuko du Eusko Jaurlaritzako Lan Saila eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarekin, material gehiago sortuko du euskaraz, euskal espezialitateak bultzatu, dauden azpiegiturak finkatzeko lanari eutsi eta Euskararako Institutua sortu nahi du aurten bertan.

Campusak	Zentruak	Ikasketak	Ikas. eleb. (*)	Irakasleak	Irak. eleb. (**)
Araba	4	4.357	596	390	60
Bizkaia	12	34.167	2.766	1.770	221
Guipuzkoa	10	14.080	1.792	736	200
Denetara	26	52.604	5.154	2.896	481

(\*) Euskaraz ikasten dutenak

(\*\*)Euskaraz irakasten dutenak

### 92-93 IKASTURTEAN IKASKETA OSOA EUSKARAZ EGITEKO AHALBIDEA

#### Arabako campusa



#### Guipuzkoako campusa



#### Bizkaiko campusa



# Pello Salaburu, Euskararako errektoreordea EHUn

Pello Salaburuk, 41, euskaltzain eta doktore arizkundarrak esperientzia akademiko zabala du. Deustuko

Unibertsitatean Soziologia ikasi eta Euskal Filologiako hiru ikasturte egin zituen. Bostongo MIT ospetsuan Hizkuntzalaritza ikasketak egin eta gero, Koldo Mitxelena zuzendaritzapean Baztango hizkerari buruz egin zuen doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz sortu eta aurkeztu zen lehena.

EHUn bertan oposizioz atera zen Euskal Filologiako lehen katedraren jabe egin zen. Harrez gero Idazkuntza eta Euskal Hizkuntzalaritzaren Teoria irakatsi ditu.

Euskaltzaindiak 1985ean Irigarai euskaltzain nafarrak utzitako lekua betetzeko euskaltzain oso izendatu zuenean, orduko euskaltzainik

gazteena izan zen. Gaur egun Gramatika Batzordean egiten du lan eta Euskara Batuko Batzordearen idazkaria da.



Pello Salaburu

Bi urte direla EHuko Euskararako errektoreorde izendatu zuten. Orduan eragozpen bereziak aurkitu zituen euskararen benetako egoera zein zen jakiteko eta irakasle elebidunak kontratatu ahal izateko. Arazo hauek gaindituta, euskararen presentzia EHUn handitu egin dela uste du. Hala ere, unibertsitatera iristen diren ikasleen euskara maila eskasak

kezkatzen du orain.

Datozen urteetarako orain arteko politikarekin segitu, Euskararen Institutua sortu eta irakasleak ez diren langileak euskalduntzeko lanari eutsi nahi dio. Eskubete lan euskararen egoera unibertsitatean berak nahi duen bezalakoa izatera iristeko.

## Mendizaleak euskaraz

Mendizaleentzat oso interesgarri diren bi argitalpen plazaratu berri dira euskaraz.

• **Bide Piriniarra.** Jose Antonio Lopez Lafuentek eta J.M. Vicente Blascok prestatua eta Euskadi, Nafarroa, Arago, Andorra eta Kataluniako mendi federazioek argitaratua, bertako gobernuen laguntzarekin. 47 etapatan, Higuier lurmuturretik, Hondarribian, Creux lurmuturrerainoko ibilbidea jorratzen du, Pirinioetan zehar, 165 orrialdeko liburu honek. Fitxex osatua, argazki, mapa eta perfil ugariz hornitua dago.

• **Euskal Herriko Mendien Katalogo.** Euskal Mendizale Federakundeak argitaratua, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren laguntzarekin. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroako mendien mapak dakartza.

**Hizkuntza plangintzarako diploma** (Euskal Herriko Unibertsitatea) prestakuntza ikastaroa egiteko laurogei pertsonak eman dute izena, horietatik berrogeita hamazortzi herri-administrazioko langileak dira eta hogeita bi unibertsitatekoak. Ikastaroaren aurkezpena azaroaren 3an izan da eta hasiera akademikoa 8an.

**"Berbia emon" hitzarmena Eibarren.** Eibarko Udalak, herriko ikastetxeek eta kirol zein kultur giroko 46 elkartek "Berbia emon" hitzarmena sinatu dute euskara eskolaz kanpoko esparruetara zabaltzeko. Eibarren OHOn diharduten umeen %92a eta hezkuntza ertainetan ari diren %40a euskaraz ari da ikasten. Klean berriz, %25a baino ez da euskaraz mintzatzen. Horixe da irabazi nahi dena.

**Iparraldeko ikastolek gora** egin dute (% 10) aurtengo matrikulazioetan. Seaskak (108 langile) 1.300 ikasle izango ditu eta 529 milioi pezetako aurrekontua 93-94 ikasturterako. Diru horren erdia Estatu frantsesak ordaintzen du, %40a gurasoek eta gainerakoa beste erakundeek. Eskari berriari aurre egiteko ikastaro berriak sortu eta ikasgelak gehitu ditu Seaskak zenbait herritan.

**"Igo itzazu euskararen trenera".** Hori da Nafarroako Gobernuak, AEK-k eta IKAK, erresumako zenbait mankomunitate eta udalekin batera, eratu duten transmisio kanpaina. Gurasoei familiaren barruan euskararen erabilpenak duen garrantziak jabeaztea da kanpainaren helburua. Hiru epetan egingo da eta ikastaro bereziak antolatu dira euskara ikasi edo hobetu nahi duten gurasoentzat.

# Irakasle ez-unibertsitarien hizkuntza eskakizunak

Euskal Autonomi Elkarteko Hezkuntza Sailak aurtengo uda baino lehen araututakoaren arabera, irakaspostu ez-unibertsitari guztiak izango dute 1HE (lehen Hizkuntza Eskakizuna) edo 2HE (bigarren Hizkuntza Eskakizuna).

- 1HEk irakasleek eskola eremuko harremanetarako euskaraz behar duten Hizkuntza gaitasuna ziurtatuko du.

- 2HEk, bestalde, euskara edo euskaraz irakasteko hizkuntza gaitasuna.

1HEko irakaspostuak betetzen dituzten irakasleek ez dute Hizkuntza eskakizun hori egiaztatu beharko haueko baldintzaren bat ematen bada: 1993an 45 urtetik gora izatea, Hizkuntza ikasteko gaitasun eza frogatzea edo ahalurritasunak eragindako irakasleak izatea.

Goiko koadroak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan hizkuntza eskakizunen banaketa eta derrigortasun epea erakusten ditu, beti ere hamalau irakasleko paradigmatik abiaturatuta.

Azpikoak, ostera, Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeen egoera.

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA				
EREDUA	1HE		2HE	
	Kopurua	Derrigortasun epea	Kopurua	Derrigortasun epea
A	11	Derrigortasunik gabe hurrengo 10 urteotan	3	Berehala
B	4	Hurrengo 10 urteko epe batruan	8	Berehala
			2	Hurrengo 5 urteko epe batrua
D	1	Berehala	13	Berehala

  

IRAKASKUNTZA ERTAINAK				
EREDUA	1HE		2HE	
	Kopurua	Derrigortasun epea	Kopurua	Derrigortasun epea
A	Irakasle guztiak Euskal Hizk. eta Literaturakoak izan ezik	Derrigortasunik gabe hurrengo 10 urteotan	Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleak	Berehala
B	Inor ez		Irakasle guztiak	Berehala

## Euskararen politikarako oinarriko irizpideak

Argitaratu berri da ekainaren 4an Euskararen Aholku Batzordeak onartutako txostena. Gizartearen eta euskararen bizitzan erantzukizun edo zerikusirik duten erakunde, elkarte eta hiritarrei zuzendua dago. Euskararen normalkuntzarako adostasuna eta irizpide praktikoak lantzen lagundu nahi du.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia**  
Wellingtongo Dukea, 2  
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz     Gazteleraz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea:.....

.....

Herria: .....

Kodea:.....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

## Galdezka

### Urrats berriztatzaileak

**G.** Aurrera begira hainbat urrats berriztatzaile eman behar direla esan duzu oraintsu. Labur-labur esanda, zeintzuk?

**E.** Gaur eta hemen, nondik gatoroen, non gauden eta nora jo nahi dugun ikusita, ezinbestekoa iruditzen zait dirutan zein indarretan hain beste kostatakoa behar den bezala sendotu eta garatzea, beti ere etekin hobea atezaz.

Horretarako, besteak beste, euskararen lanketa eta eguneratze-lanetan dabiltzan erakunde eta azpiegiturei dagokiena aipatuko nuke. Era berean, izatez euskaldun diren familietan izan beharreko

hizkuntza leialtasun eta transmisioari dagokiona. Beste horrenbeste euskaraz ere bizi nahi dugunoi euskaraz bizi ahal izateko beharrezkoak zaizkigun gune eta aukerei dagokiena.

Lan honi ahalik eta etekin handiena ateratzeko, inertzia, indar-sakabanatzearen aurkako jarrera eta ezin ikusiak alboan utzi behar ditugu eta elkar bizitzarako eta elkarlanerako apustu serioa egin.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako  
Idazkari Nagusia

## Euskaraz ondo idazteko bi liburu

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bi liburu plazaratu ditu euskara idatzia modu egokian erabiltzeko.

• **Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma**, HABEko Glotodidaktika Sailean lan egiten duen Eskarne Lopetegik prestatu du, Boni Urkizuren laguntzarekin.

Nagusiki Euskaltzaindiak urteetan eman dituen arau eta gomendioen bilduma da. Horiez gain, Elhuyar Kultur Elkarrekin mundu osoko estatu eta hiriburuentzat proposaturiko izenak eta UZEIk emandako sigla,



ikur eta laburdurei buruzko proposamenak.

• **Idazkera-liburua**, Pello Esnalek eta Joxe Ramon Zubimendik paratua. Egileek aitortzen dutenez, "kazetari euskararen eredu du helburu liburuak, komunikagarritasuna irizpide nagusi, lehen egina oinarri eta Orixe eta Mitxelena gidari". Kazetaritza bere osoan hartu dute kontutan: ahozkoa eta idatzizkoa, azken honi leku zabalagoa eskaini badiote ere. Atal hauek dauzka: ahoskera, ortografia, joskera, zehaztasuna, hika, tipografia, neurriak eta zuzenketa markak.



## ✓ Kontutan hartzeko

• **Ekin Euskarari Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren erakusketa ibiltaria** Leitzan izango da azaroaren 12tik aurrera.

• **Expolingua, Berlin.** Azaroaren 18tik 21era bitartean izango da, Alemaniako hiriburuan. Aurreko ekitaldietan bezala, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, elkar

hartuta, osatuko dute euskararen ordezkaritza.

• **Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak** Arrasaten izango dira azaroaren 26an eta 27an. Aldizkari, irrti eta telebista lokalak aztertuko dira. Matrikularen prezioa: 10.000 pta. Berri gehiago: José Félix Díaz de Tuesta, (943) 79 09 00 telefonoan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA

SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA